

## **2019-10-29ko OHIKO UDALBATZA**

Irurako udaletxean, 2019ko urriaren 29an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Gorka Murua Macuso izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Noelia Lataburu Ortiz, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Olaia Nieto Legarra eta Leticia Aristi Oria.

-Azaldu ez diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Inor ez.

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Ana Jesus Leunda Gurruchaga, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian, Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Inor ez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak hasitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

### **LEHENENGO GAIA**

#### **AURREKO AKTA ONARTZEA (2019-09-24).**

Udalbatzak, aho batez, 2019ko irailaren 24ko bileraren akta onartu du.

### **BIGARREN GAIA**

#### **ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019/202 DEKRETUTIK 2019/225 DEKRETURA BITARTEAN.**

Alkateak 2019/202 dekretutik 2019/225 dekretura bitartekoen berri eman dio Udalbatzari.

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**HIRUGARREN GAIA**

**GIPUZKOAKO GARRAIOAREN AGINTARIAK GIPUZKOAKO UDALEKIN SINATURIK ERROLDAREN LAGAPENARI BURUZKO HITZARMEN EGOKITZAPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoak Gipuzkoako udalekin sinatu zuen Erroldaren lagapenari buruzko hitzarmenak eta orain urriaren 1eko 40/2015 Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legeari egokitzeko prozeduraren hasiera jakinarazi ondoren, GGLAren Batzar Orokorrak irailak 24ean ospaturiko bilkuran hitzarmen berriaren erdua onartu zuen. Hortaz, udal honi bideratzen zaio hitzarmena onartzeko eta sinatzeko hala badagokio.

Hori dela eta, aho batez, udalbatzak hau erabaki du:

1º.- Aipatu den hitzarmena onartzea.

2º.- Gorka Murua Macuso alkate-lehendakariari baimena ematea hitzarmen hori sinatzeko Irurako Udalaren izenean edo xede horrekin beste edozein ekintza edo kudeaketa burutzeko.

**LAUGARREN GAIA**

**ESPAINIAKO AUZITEGI GORENAK KATALUNIAKO PROZESUARI BURUZ EMANDAKO EPAIAREN AURREAN EAJ/PNV ETA E.H. BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOAK EZTABAIDATZEA ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

EH Bildu udal taldeak eta EAJ/PNV udal taldeak Mozio hau aurkeztu dute:

**ESPAINIAKO AUZITEGI GORENAK KATALUÑAKO PROZESOARI BURUZ EMANDAKO EPAIAREN AURREAN.**

1. EH Bildu eta EAJ/PNV udal taldeek ziurtatzen dute demokraziaren adierazpen baketsua, indibiduala zein kolektiboa, gauzatzea eta herriari hitza ematea ez dela delitua. Hori horrela, urriak 1eko erreferenduma tresna demokratiko eta zilegia izan zela, eta Kataluniak bezala Euskal Herriak ere, berezkoa dutela etorkizuna erabakitzeko eskubidea.
2. EH Bildu eta EAJ/PNV udal taldeek argi eta garbi adierazten dute ezin direla justifikatu Auzitegi Gorenak eta Estatuko botereek Kataluniako agintari eta gizarte eragileei bizkarreratutako auzia eta ezarritako zigorrak.
3. EH Bildu eta EAJ/PNV udal taldeek nabarmentzen dute Kataluniako Procesaren aurkako auziak eta epaiak Zuzenbide Estatuaren itxuragabetzea dakartela eta ezbaian jartzen dutela espainiar demokraziaren homologazioa nazioartean.
4. EH Bildu eta EAJ/PNV udal taldeek azpimarratzen dute euskal herritarrei zuzenean eragiten digula Estatu espainiarraren erantzun bortitzak, izan ere herrien borondatea era demokratiko eta baketsuz erabakitzea moztzen baitu eta arazo politikoari tribunalen indarrez, 155. Artikuluaren ezarpenez edo erabakitze eskubidearen alde egiten dutenei edonolako neurri bidegabeak ezarritzen irtenbide elkarrizketatu eta negoziatua bilatu ordez eta herriari galdetu beharrean.

5. EH Bildu eta EAJPNV udal taldeek Estatuko botereei eskatzen diete, espetxean dauden preso politikoak berehala aske utz ditzatela eta era berean, erbestera politikoaren aurkako auzibideak bertan behera utz ditzatela.
6. EH Bildu eta EAJ/PNV udal taldeek elkartasuna adierazten diete Kataluniako preso eta erbestera politikoari nahiz haien etxekoei hala nola Kataluniako herriari eta erakundeei, eta gipuzkoarrei dei egiten diete bat egin dezaten herriari hitza ematearen aldeko ekimen baketsuekin, demokraziaren eta askatasunaren alde.

Eta hori ikusita udalbatzak, aho batez, onartu du aurkeztutako mozioa.

## **BOSGARREN GAIA**

### **E.H. BILDUK AURKEZTUTAKO EGUNEKO ZENTRO ETA EGOITZETAKO LAN GATAZKARI BURUZKO MOZIOA EZTABAIDATZEA ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

EH Bildu udal taldeak Mozio hau aurkeztu du:

#### **EGUNEKO ZENTRO ETA EGOITZETAKO LAN GATAZKARI BURUZKO MOZIOA.**

Zu eta Biok empresako langieek 118 greba egun baino gehiago bete dituzte jada. 4 urte daramatzate hitzarmenik gabe, eta lan baldintzak hobetu gabe. Langileen %98 emakumeak direla ere azpimarratu nahi genuke. Gehienbat gizonezkoak diren beste sektore azpikontratatuaren aldean, beraien soldata-arrakala 6000 euro gordinekoa da. Pertsonala hain urriak izateak ere, kalteak dakartza, kalitatezko zerbitzua emateko orduan hain zuzen ere.

Egoeraren larritasunaren aurrean, Irurako udalak zera aipatzen du:

1. Irurako udalak elkartasuna adierazten dio Zu eta Biok enpresari, baita ere, egoera berdinean egon daitekeen gainontzekoei ere.
2. Irurako udalak bere kezka adierazten du adinekoentzako eguneko zentro eta egoitzetako sektoreko lan gatazkan dagoen blokeoagatik, bereiziki, Gipuzkoako Foru Aldundiak negoziazio mahaiean gehiengo duten patronalek eta sindikatuak lortutako aurreakordioari babesa ematea baztertu duenetik.
3. Irurako udalak beharrezkoak diren baliabideak bideratu ditzala eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, eguneko zentro eta egoitzen sektoreko lan gatazka ahalik eta azkarren konpontzeko, egoiliarrei ahalik eta kalterik txikiena sortzeko.
4. Irurako udalak Foru Aldundiari eskatzen dio, sustatu dezala aipaturiko zerbitzuen ratioen hobetzea, modu horretan, egoiliarren profil berrietara egokituz.
5. Irurako udalak Foru Aldundiari eskatzen dio, antolatu dezala mahai bat, non patronalek, sindikatuak eta Aldundiak berak parte hartuko duten, eguneko zentro eta egoitzetako sektoreko lan gatazkari irtenbidea bilatzeko helburua izango duena.
6. Irurako udalak, lan gatazka konpontzeko akordioak diruz babes ditzala eskatzen dio Foru Aldundiari.

Eta udalbatzak, bost boto alde (EH Bildu) eta lau abstentzio (EAJ/PNV) onartu aurkeztutako mozioa.

### Eztabaida:

Ana Jesús Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) adierazi du Irurako EAJ/PNVek bere kezka adierazten duela adinekoentzako eguneko zentro eta egoitzetan irekita dagoen lan gatazkagatik, gatazkak luze irauteak eragin ditzakeen gorabeherak direla eta.

Lan gatazka honetan inplikaturako sindikatueta eta patronaletako eragile guztiei eskatzen diogu bilatzeko gatazka amaituko duen akordio bat, Gipuzkoako adinekoentzako egoitza zentroen lan hitzarmenaren negoziazio mahaiaren esparruan.

Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diogu, bereziki greba aldietan eta haren ikuskaritza zerbitzuen bitartez, zaintzeko ematen den zerbitzuaren kalitatea eta bermatzeko greba deialdietan parte hartzen duten zentroetan ezarritako gutxieneko zerbitzuak betetzen direla.

## **SEIGARREN GAIA**

### **IDAZKARI KONTUHARTZAILAREN TXOSTENAK.**

Idazkari kontu-hartzaileak 2019ko 3<sup>o</sup> hiru hilabeteen ekitaldian ordaintzeko batez besteko epeari buruzko txostena jakinarazi du.

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

## **ZAZPIGARREN GAIA**

### **GALDE -ERREGUAK.**

Gai hauek jorratu dira:

- a) EH Bildu udal taldeak azaroak 25eko emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunari buruz adierazpen instituzionala aurkeztu du, baina mahai gainean geratu da, aho batez, hurrengo udalbatzan tratatzeko.

OHARRA: eztabaida osoa jasota dago "[www.irura.eus](http://www.irura.eus)" helbidean.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:40an eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA